

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari@egunkaria.com



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

Bilbora zergatik eta zertara goaz

Elias Mendinueta (*Ikasberri-Azpeitiko ikastolako lehendakaria*)

Euskal Herria jasaten ari den erasoari aurre egiteko eta hezkuntzari dagokionez ikastolak, euskara eta euskaldun gazteak espainolengandik zuzenean jasotzen ari garen erasoaren aurrean gu zeren alde gauden ozenki adieraztera: gure eskola bakarra Euskal Herriko Eskola Nazionala. Deialdiaren aurrean hasieratik izan dugu gure kezka indefinizio handiarekin ikusten genuelako eta manipulagarria bihurtzen zelako. Horregatik geuk azaldu nahi dugu gu zergatik eta zertara goazen. Le-loa osatzeko gehigarri oso sinplea erantsiz gure presentzia manifestazioan kokatu egin dugu: gure eskola bakarra, Euskal Eskola Nazionala.

Espainolen eraso ulertzeko eta geurea argitzeko zenbait puntu aztertzea merezi du. Bi dira espainolek hezkuntzan inposatu nahi dizkiguten ezaugarri nagusiak, betidanik zaindu izan dituztenak eta azken boladan harrotuta martxan ipintzen ari direrak: espainolotasuna eta menpekotasuna. Bi dira Ikasberrikoek ditugun ezaugarri nagusiak: euskalduntasuna eta eraginkortasuna. Argi azaldu genuen Kilometroak zirela eta urte osoan publikoki gure egitasmoa. Euskalduntasunak eta eraginkortasunak suposatzen dute nortasun ezaugarriak ondo definituta azaltzea eta ikasle eragileak lortzeko irakasleen beraiekiko jarrera bezero bezala tratatzean oinarritzea. Menpeko harremanak izatetik eragile izatera aldatzea.

Estatu espainolak erreforma egin zenean eta ondoren izan duen garapenean zaindu izan dute Estatuko biztanle guztien espainolotasuna bermatzea. Autonomi Estatutuen bitartez zenbait ahalmen ematen joan dira, betiere zainduz espainolotasuna kuestionatu gabe gelditzen zela. Eskola eremuari dagokionez, orain dela urte batzuetatik Legediaren garapena nabarmen ikusi zen Autonomia Erkidegoko Euskal Eskola Publikoaren legean.

Orain, Nafarroakoentzat barne, datozen legetasmo guztiak askoz ere indar gehiagorekin bermatzera datoz espainolotasuna, eta lehen-



galdeiozu...

Donostian lan handiak egin dira azken urteetan, itxuraldatua dago. Ondo deritzozu? Begoña Azpitarte (Donostia)

Herri berritu baten itxura. Euskal Herri berriaren ataria: kosmopolita eta euskalduna, pausoz pauso gauzak egiten diren bezala. Bi pauso aurrera eta bat atzera, eta horrela goaz, pittinka. Maria Cristina erreginaren nostalgiak ahantziz, Donostia zahar eta jatorraren izaera eta ohiturak probintziatik eta atzeritik etorritakoen artean zabal-tzen.

Abenduaren 18tik aurrera **Anari • musikaria** izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.



RAMON LABAIEN

Donostiako alkate ohia

goaz gain, mekanismo kontrolatuagoak ezarri eta indartuta utzi nahi dute erreforma politikoa eskola munduan.

1993an Euskal Eskola Publikoaren legearekin egin zuten bezalaxe, orain datozen legeekin ere mugimendu hauei amaiera eman nahian, presio ekonomiko, laboral, politiko eta mediatikoak erabiltzen ari dira. Bada ordua argiago esateko geure eskolaren alde gaudela esaterakoan zer ari garen esaten:

1- Eskola munduan erreformaren mugak ez ditugula onartzen beraz, oraingo eskolaren alde ez gaudela.

2- Ikastolen Mugimendu Nazionala indartu nahi dugula, ulertuz ikastolen etorkizuna erabat lotuta doala Euskal Herriak nazio bezala bere burujabetasuna lortzeko daraman prozesuarekin, eta hori lortu arte ez dela gauzatu Euskal Eskola Nazionala.

3- Euskal Eskola Nazional horretako ikasleak askeak eta eragileak nahi ditugula.

Guk, Ikasberrikoak, oraindik eraikitza nazionalaz hitz egiten ez zen garaietan, aukera hori egin genuen Euskal Eskola Publikoaren legea alde batera uzterakoan. Kontutan izan genuen egoera politikoa oso aldakorra dela gure herrian, eta batik bat egungo marko juridiko politikoa arrisksua kontsideratuz, ikastolak Administrazioaren esku ez uztea erabaki

genuen. Orain inoiz baino argiago dauka edonork zer gerta dakigukeen, PP, PSOE edo biak batera gobernatzea iritsiko balira.

Horregatik, Bilbora joatea erabaki dugu gure kezkei irtenbidea topatuz, guk geure eskola bakarra, euskal eskola nazionala han esatea merezi duelako eta gure seme-alabak jasaten ari diren barrabaskeriaren aurrean gauzak argi uztea merezi duelako.

Nafarroako Eguna dela eta

Jesus Maria Aragon Samanes (*EKAko Formazio idazkaria Nafarroan*)

Abenduaren 3an ospatu zen Nafarroako Eguna. Horri buruz Alberto Catalan UPNko parlamentarioak egindako hausnarketa bat irakurri dut. Nafarroako aurrerakuntza eta ongizatea goratu ditu Catalanek, eta elkarrizketa, elkarrulertze, kontsentsu eta elkarlaguntzaren alde egin «nahiz eta jarrera ideologiko ezberdinetatik izan». Garapenari eutsi behar zaiola esan du, eta herrialdearen eta herritarren aurrerakuntzari ere bai. Nafartar guztiak ez dute iritzi bera gaur egungo egoerari buruz, eta, nik uste dut, Catalanek *aurrerakuntza* hitza darabilela ekonomiaren arloari buruz soilik jarduteko. Hala ere, *aurrerakuntza* hitzaren esa-

nahia askoz zabalagoa da; hor barruan lekua du, esate baterako, kultur arloak, Catalanen gogoetan inondik inora ageri ez denak. Hor daude Arte Ederren, Musikaren eta lur honetako berezko hizkuntzaren, Euskararen, *Lingua Navarrorum*-en, egoera.

Zer berri? Zaharrak berri

Martin Agirre Irazoki • ERGOBIA

Orain dela gutxi, ume gineneko lagun zahar batekin egin nuen topo. Zer berri?, galdetu zidan. Zaharrak berri, motel!, erantzun nion. Gogoratzen al haiz ume gineneko garaietan eskolan, erderarekin zein estuasun eta zigor igaro behar izan genizkian? Hori, errepublikako demokrazia garaia zelarik gainera. Eta gerra garaian, zer esanik ez —ezin esan, gainera—. Eskerrak oraingo Historia zientifiko berri honek zehaztasun guztiak argituko dizkian.

-Horiek zaharrak ditu ordea, Martin, aspaldiko kontuak!

-Horiek bai zaharrak. Ez al duk entzun egunkari eta irratietan kale borroka eta adin txikikoen legedia aldatu nahian dabilzan asmoa? Berria omen, gauzak *zuzendu* nahian ari omen dituk. Patxi bizi zela, nere iloba beste batzuekin kartzelan sartu ziaten institutuan pintada batzuk egiteagatik. 16-18 urte zizkizaten orduan. Zein hilketa egin ziaten pintada haiek eginda? Haiek kartzelan sartzean ez zuan ezer konpondu eta orain gaztetxoak kartzelan sartzeak ere ez dik ezer konponduko. Ba al duk munduan norberaren herria babesteko prest izango duen gazterik ez duen herri-rik? Indarra, gazteek ditek eta horiek izango dituk toki guztietan beti altxako direnak.

ETAn gazterik sartzen dituala orain? Erregea jarri eta Guardia Zibilak hil zuen ETAKoa zela esaten zuten lehenengoak 18 urte besterik ez zituan (nere ilobarekin kartzelan egondako haietako bat zuan pintaden kontuagatik). Gogorkeria, berria ez, zaharra duk motel! Eta Espainiako konstituzioaren menpean garen bitartean, gainera, ez dik honek bukaerarik izango: gure herria beste hizkuntza bat ikasi eta hitz egitera behartzea ez al duk gogorkeria? Eta horiek omen dituk demokratik, errepublika garaioak bezalakoxeak!

montxo

